



JOXEAN TOLOSA TXAPELKETA AURRERA

Bigarren jardunaldia jokatzeko ari dira pilotariak; Añorgak aurrera egin du, baita Andoaingo taldeak ere 4

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2009-07-12

VILURTEA 1.752 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Atzo sahararrak heldu zirenean zain zituzten euren familiak; hauen etxeetan biziko dira bertan dauden bitartean; era guztietako sentimenduak nahastu ziren. REBEKA CALVO

UDA GOZOA SAHARAKO 15 UMEENTZAT

TOLOSALDEA Guztira 450 haur heldu ziren atzo Euskal Herrira, horietako 15 Tolosaldean izango dira uda guztian 4

«Voith-Gorostidiko zozketarenak badu soluzioa», dio ezker abertzaleak

TOLOSA Etxebizitza tasatu eta libre batzuk babes ofizialekoak bihurtzea proposatu du «Udalaren eta enpresaren aldetik borondatea egonez gero» 5

Tolosaldeko Triatloi Taldea sasoi onean dago

TOLOSALDEA Egun 30 triatletek osatzen dute taldea; atek irekita ditu «nahi duenarentzat» 6-7

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 09:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31880 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko, betetik, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak TOLOSA HERRIA HEDARIDEAN S.L.-ren (baita ere, autonomo izan arren) pasatuko direla, enpresak dituen eskaintzen berritasunak, zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezarritako eta kontra agiteko eskubideak erabiltzeko, itabiegun nahi izanez gero, idazki behar duzue. TOLOSA HERRIA HEDARIDEAN S.L.-k: Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa, eko.harpidetza@hitza.info

» **Uzturretik**

Andu Martínez de Rituerto

Opor usaia antzematen da eskualdeko bazter ugarietan; herrietako plazak, parkeak, frontoiak eta igerilekuak ume eta gazteez lepo daude. Helduoi ere desi-

ratutako atsedeen egunak iritsiko zaizkigu lehenago edo beranduago.

Oporretako egunak ideia positiboekin lotzen ditugu beti, bizipen berriak, bidaiak, atsedena... eta horien esperoan bizi ohi dugu maiz. Baina, bizitzaren paradoxak, badi-rudi bakantzetako egun hauetan inoiz baino gehiago eztabaidatzen dugula bikotearekin eta banaketa kopuruak gora egiten dutela. Urtean zehar gure bizitza oso antolatua

eta neurtua izaten dugu gehiengotan; norberaren eginkizunak familaren barnean ere oso zehaztuak egoten dira eta gelditzeko eta pentsatzeko tarte txikiak ditugunez bizitzaren gurpilak aurrera egiten du inertzia inkontzientean. Gurpila gelditzen da bapatean; oreka berria topatu behar, eta harremana nahiko zaindu eta ureztatu ez badugu lehor xamarra egongo da eta elkarbizitzaren txinpartak sugarrak piztu ditzaket.

Eztabaidak, haserraldiak, mutur okerrak... batzutan saiestezi-nak izaten dira, badakit zoritzarrez halaxe dela, baina zinez diotsuet gerroz eta garbiago dudala neurria hartu behar zaiela gogo txarreko aldarte horiei. Bizitza nahiko nahigabe ekarriko dizkigu berez, txorakeriengatik haserre eta eztabaida betean aritzeko une oro. Noizbait irakurri nuen arazoa ez dela haserretzea, arazoa une egokian eta neurri-

egokian haserretzean datzala berri.

Gogoan hartzeko moduko irakaspena; kontua da, haserretzen hasten garenean eta emozioak bor-borka ari direnean, pentsamendu razionala zirrikituren batean izkutazteko ohitura izaten duela eta... zas! Aldez aurretik pentsatutako guztia pikutara eta konturatu gabe une desegokian eta neurritu kanpo haserretu gara berri...

A **Argazki zaharra**

Sanferminek beti piztu dute zaletasun handia gurean

TOLOSALDEA • Betidanik izan da eskualdean sanferminetarako zaletasuna. Horren adibide garai bateko bi argazki hauek. Goian, Amasako hainbat herritar ageri dira 1964. urteko uztailearen 13an Iruñeko San Fermin jaietatik bueltan; hain zuzen ere, Arantzadin egin zuten geldialdia. Garai hartan, ohikoa zen Iruñetik baratxuri sortarekin itzultzea (irudian ere halaxe azaltzen dira). Villabonan ez ezik Tolosan ere 50. hamarkadan ere ospatzen zituzten sanferminak behiko irudian ikus daitekeen bezala. Errementari kaleko 38. zenbakian zegoen El Tuerto tabernako jabea Jose Villanueva artaxonarra zen. Lehen tabernetan ohitura handia zegoen katxutxora jokatzeko, eta hortik taberna horretan Katxutxo peña sortu zuten, 12 kide inguruk osatua. Hauek hasi ziren sanferminak ospatzen. Hainbat ekitaldi antolatzen zituzten, eta horien artean pisu handiena katxutxo lehiaketak izaten zuten. Honetaz gain, beste hainbat lehiaketa, zinema, bazkariak, jolasak, musika... ere izaten zen. «Oso giro polita» izaten zela diote festa hauek garai hartan bizi izan zituztenek. AMASA-VILLABONAKO ERRETRATU ZAHARRAK/HITZA

@ Elkarrizketa digitalak. Sar-tu gure webgunean eta irakurri auzer eginiko elkarrizketa digital guztiak: Gari Uranga Realeko jokalaria, Jokin Bildarratz Tolosako alkatea, Inaxio Perurena harri-jasotzailea, Antton Izagirre eta Hektor Espin Tolosako alkate ohia eta hautetsi independentista, Edurne Pasaban eta Asier Izagirre mendizaleak, Garbiñe Biurrun epailea, Kike Amonarriz telebista aurkezlea, idazlea, soziolinguista, umorista. Leire Olaberria txirrindularia, Nerea Sancho exologoa, Inaki Irababalbeitia Independentistak eta ezkertiarak koalizioako Euskal Herriko zerrendaburua...

www.tolosaldeko-hitza.info

H **Hilberria**

PEDRO LANCETA CINCUNEGUI

JAUNA

Uztailearen 4an hil zen, 52 urte zituela.

Zure koadrilak ez zaitu ahaztuko



Loreto, Izquierdo, Esteban, Pela, Juanjo, Yon, Marcelino, Mari, Exola, Prakas, Josetxo, Iñaki.

TOLOSAN
2009ko uztailearen
12an

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan **DOAN** agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

S Soka motzean

«Kukuxumuxuren oroitzapen batekin joaten dira denak»

IZASKUN IPARRAGIRRE >

Langilea

ASIER IMAZ

Lan egitea tokatu zaito Iruñeko sanferminetan Izaskun Iparra-girrerri (Leitza, 1975). Egun hauetan, Kukuxumuxuren denda saltzaile lanetan dabil leitza.

Zer da sanferminetan Iruñean lanean aritzea?

Lanaren arabera desberdina da, agian taberna batean askozaz gogorragoa izango da. Denda batean zure ordutegia duzu eta ez zara egun guztia egoten: ongi dago.

Festaz gozatzeko aukera egoten al da?

Bai. 16:00etatik 00:00etara egiten dut lan eta hortik aurrera nahiko parranda egiteko denbora badago.

San Fermin zalea al zara?

Bere garaian bai. Baina orain haurrak, lana... denakin ezin da.

Kukuxumuxuk bi denda ditu zabalik Iruñean, ezta?

Ofizialak bai. Baina orain, sanferminetan, Estafeta guztia Kukuxumuxuren dendez beterik dago.

Zer dauka berezia?

Ez dakit baina ongi saldua dago: Espainia mailatik edo atzerritik etortzen diren guztiak Kukuxumuxuren oroitzapen batekin joaten dira.

Erosleez gain, erretiratu gabeko jendea sartzen al zaizue?

Denetik dago, baina orokorrean giro ona egoten da. Jendea normalean ez da gaiztoturik ibiltzen. batzutan adarra jotzera sartzen zaizkizu baina ongi.

Sanferminetako egun bat?

Txupinazoaren eguna adibidez: goizetik hasi eta egun osoa delako, gero gauetz ahal duenak irauten du.

Eta zure ustez zer falta zaie?

Euskara eta euskal giro gehiago.



A. IMAZ

Egun alaia izan da azokan

Tolosa » Eguzkiaren beroa igerrri zen azoka osatzen duten kaleetan; fruta eta barazki eskaintza zabaldu egin da.

PABLO ALBERDI

Egun alaia izan genuen atzoko azokan. Eguna benetan oso alaia, eguzkiaren presentzia eta goxotasuna zela eta. Egun hauetako euria zertxobait luzea egin zaigu batzuei, baina izan duen eragin positiboa asko nabarmendu genuen atzo azokako postuetan.

Ikusitako barazki gehienak asko hobetu ziren euriaren ondorioz batez ere, eta izan ziren ere edozein lehiaketarako aproposak ziren batzuk mahaietan txukun jarrita. Baina, piparra edo tomate nagusi zirela, babak eta ilarrak ere ikusi ahal izan genituen, eta hauekin fruta zerrenda polita ere, arana eta gereziaz osatutakoa batez ere. Aranak joan den azokan bage-nituen ere, oraingoan itxura hobea dute.

Perretxiko eskaintza ere zabala izan zen, onddoa, ziza horia eta gibeldurina nagusi zirela. Prezioen aldetik berdin mantendu dira perretxikoak.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA Merk. Gares.

Landareak

Geranioa	2,00	-
Gineako alegria	2,90	-
Salbia	1,00	1,20
Klabelina	6,00	-
Lobelina	2,20	-

BERTAKO PRODUKTUAK

Fruta

Arana	2,00	-
Gerezia	5,00	-
Intxaurra	2,50	4,00

Perretxikoak

Onddoak poteetan	9,00	-
------------------	------	---

Gibelurdina	28,00	-
Onddoa	20,00	30,00

Barazkiak (kiloa)

Baba	3,00	4,00
Tomateak	3,00	5,00
Bainak	4,00	-

Besteak

Ogi biologikoa (900)	3,20	-
Arrautzak	2,50	-

Gaztak

Behigazta	8,00	9,00
-----------	------	------

PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Erremolatxa	1,60	-
Zerba	2,00	-



Fruten artean aranak eta gereziaz ere hasi dira azaltzen azokan. PABLO ALBERDI

E Eztabaida eta inkestak



Voith Gorostidiko zozketa errepikatu behar izan zuten. Ordurako 55 etxebizitza banatuta zeuden eta hauek baliogabetu zituzten. Nola uste duzu konpondu daitekeela hau?

■ «Lotsagarria iruditzen zait. Nola da posible etxebizitzetako zozketa batean numero guztiak ez sar-tzea? despistea izanda ere oso-oso grabea iruditzen zait. Hori ezin da onartu. Ardura denena da, no-tarioarena eta Udalarena hein ba-tean ere bai. Orain ere herritarrak izango du ba... Ez dauka beste ize-nik, lotsagarria da: eta niri ez dit balio esatea «giza-akatsa» izan dela: nola lortu dute notario izate-ko diploma, tirapitxonean? Ez da-kit ze konponbide daukan: askoren etorkizunak gertaera honengatik alde batera edo bestera egingo du, ez da broma».

■ «Nola konponduko dute ba? Bata besteari errua bota eta ez dute ezertxoere egingo... Azkene-an jende honek ez du ulertzen zer den benetan etxebizitza baten be-harra izatea. Etorkizuna zenbaki batera jokatzen dugu eta bizitzan behin sorte ona izan eta beraien huts egite batek guztia zapuzten du... Kalteturiko guztiak elkartu be-harko lukete eta zerbait egin... In-pugnatu edo zeezer... Zer gutxia-go?».

Inkesta: Uda garaiko beherapenak: krisi garaian gehiago aprobetxatuko dituzu edo gutxiago?

Gehiago.

%56.

Gutxiago.

%33.

Berdin.

%11.

G Gutunak


Maixel Arrieta, Villabonako alkatesari: ez etsi gezur eta irainen aurrean

ELA sindikatuak Villabonan izan ten ari duen jarrera lotsagarri eta zentzurik gabekoaren aurrean idatzi hau izenpetzen dugu hona-ko herritar talde batek, Maixel Arrietari gure elkartasuna adierazi eta eskaera bat egiteko, ELA sindi-kuatuak Santiago Zahar egoitzako langileen eskubideekin egiten ari den manipulazio eta gezur kanpai-na honen atzean, interes sindika-lak ez ezik interes politikoak dau-dela (zergatik ez Tolosan arazo berdina izanda halako erasoa) eta bigarrenik, ELAk badaki eskatzen ari dena (udal langileekiko solda-taren ekiparazioa) ezinezkoa dela, ez delako Udalaren eskuduntza, batetik eta bigarrenik hala izanda ere oposizio prozesu publiko bat ireki beharko lukeelako udalak eta bertako gaur egungo langileen au-kerak postuak ateratzeko ez lirite-keelako errealak izango. Horra hor ELA egiten ari zaien iruzurra bertako langileei. Zahar egoitza

horren kudeaketa eskuduntza hitzarmen baten bidez erregulatua dago Udalaren eta Aldundiaren artean (horregatik dago Egoitzaren atarian *Concertado* jartzen duen kartel handi bat. ELAk jaso du Diputazioaren aurrean eta Gi-puzkoan mailan hitzarmen kolekti-boa indartzeko proposamena baina ezetz esan dio bere vendetta partikularrei ekinez. Eta Villabona hartu du bere jomugan.

Horregatik eskatu nahi diogu Villabonako alkatesari ez dezan amore eman, jasaten ari den txan-taia eta presioen aurrean gure el-kartasuna eta babesa dituela jaki-narazi nahi diogu eta modu berean billabonatarrek elkartasuna eta babesa adieraztera deitu nahi ditu-gu. ELAri berriz, ez dezala Santia-go Zahar egoitzako langileak en-gainatzen jarrai, haiek badakitela-ko euren eskakizuna bermaezina dela. Ez diet nik euren borrokara-ko zilegitasuna kenduko, bai-na atez konfunditu dira, eta bada-kite.

Esti Amenabarro eta beste 30 sinadura gehiago. Pedagogian lizentziatua (Villabona).



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Añorgak egingo du aurrera

AMEZKETA • Amezketako XX. Joxean Tolosa pilota Txapelketak aurrera jarraitzen du. Asteburu hau bigarren jardunaldia da eta honez gero badaude emaitza batzuk: Andoain eta Añorga daukade sailkatuta. Beraz, aurrerago hauek ere ariko dira udako Amezketako beste norgehiagoka batzuetan. Ostiral gaueko emaitzak hauek izan ziren: kadeteen artean Añorgak 17, Azpeitiak 18; gazteen artean Añorgak 18, Azpeitiak 5 eta bukatzeko, seniorren mailan, Añorgak 18, Azpeitiak 10. Beraz, Añorgak bi partida irabazita aurrera egingo du. Irudian, atzo arratsaldeko kadeteen artekoan Arrasate eta Usturbil. N. LATABURU

Uda gozoa dute aurretik Saharako 15 haurrek

Tolosa » Atzo iritsi ziren Euskal Herrira uda igarotzera urtero etortzen diren haur sahararak; 450 ume etorri dira guztira.

REBEKA CALVO

Urduritasuna batzuentzat eta mementoko pena besteentzat. Bi sentimendu hauek egin zuten bat atzokoan Bilboko Loiuuko aireportuan.

Izan ere, atzo iritsi ziren Euskal Herrira horrenbeste hilabeteetan zain egon eta gero, Saharako haurrak. Ume hauek guztiak *Oporrak bakean* ekimenaren baitan etortzen dira Euskal Herrian uda igarotzera.

Guztira 450 bat ume iritsi behar ziren Bilboko Loiu aireportura, horietako 15 neska-mutil eskualdera etorri behar zirelarik, baina azken unean bisarekin egondako arazoak medio, horietako batzuk etxean geratu ziren.

Tolosaldera etortzekoa zen umeetako bat, hala ere, azkenean ez da etorriko, eta beste bat beranduago iritsiko da bisarekin izandako arazoengatik.

Tolosaldeia Sahararekin

Tolosaldean, esan bezala, 15 umek emango dute udara Tolosaldea Sahararekin elkarrearen bidez, nahiz eta bat beranduago iritsiko den. Atzokoan oraindik ere aurpegi ilun samarrak zituzten gehienek,

euren etxeetan jasoko dituzten familiarak zain zituzten, alaitsu, baina leku arrotz batera iritsi berri ziren eta oraindik ere denbora pixka bat beharko dute Tolosaldeko bizimodura moldatzeko.

Bidaiari gazte hauek guztiak saharar errefuxiatu kanpamentuetatik etorri dira, izan ere sahararrek 34 urte daramatzate *Hamada* izeneko tokian, kanpo laguntzaren bidez bizitzen. Azken hilabeteetan, gainera, laguntza hauek gutxitu egin dira, krisia edo dena dela-koa medio.

Esan bezala gazte hauek ez dute sekula bere benetako etxea ezagutu eta Euskal Herrira egindako bidai honetan euren herrian ikusi ezin ditzaketen hondartzak, mendiak eta itsasoa ikusteko aukera ere izango dute. Haur bakoitzak Euskal Herrira etortzeko bost aukera ditu.

Elastiko urdinak

Aurtengoan berrikuntzarik ere izan da bidaiaren antolakuntzan: Saharatik aireportura iristerakoan sortzen den nahasmena ekiditeko kolore desberdinetako elastikoak banatu zizkieten haurrei Loiu. Lurraldearen arabera banatu zituzten koloretako elastikoak eta herriaren izena ere ageri zen.

Elastiko hauek **TOLOSALDEKOETA LEITZALDEKO HITZA** eta *Berria* egunkariak egin dituzte, gainera, horrela antolaketaekin lagundu eta *Oporrak bakean* ekimenarekin bat egiteko.



Atzo etorritako Saharako haurretako batzuk beste urte batzuetan ere etorri izan dira Tolosaldeara. R. CALVO

Iragarki laburrak

LANA

■ **Garbiketak.** Bigi garbitasunak. Garbiketa orokorrak, obra bukarako garbiketak, bulegoak, etxeak, moketak eta alfonbrak. Deitu inongo konpromisorik gabe. 638 944 604 (Gurutze) eta 695 708 271 (Belen).



Gazteak bakoitzaren izena erakusten aritu ziren, lehenik. R. CALVO

Bidaia Agentzia
bidaide GOBOOM

Eniobeia, 6 behea • VILLABONA • 943 69 26 93

Ezker abertzalea: «Voith-Gorostidi zozketarenak soluzioa badu»

Hirigintza » «Udalaren eta enpresaren aldetik baldin eta borondatea badago», etxebizitzaren erregimenak alda daitezkeela diote.

ERREDAKZIOA

Tolosako ezker abertzalea Voith-Gorostidiko etxebizitzaren zozketaren inguruan aritu zen, bertan, hilaren 2an gertatutakoa «txapuz» hitzarekin definituz. Ezker abertzaleak etxebizitzaren proiektu eta asmoen hasiera-hasieratik heldu izan dio jarrera eszeptikoa eta «kontrakoa» izanik, «Udalaren gauzak egiteko erarekin» batik bat.

Nabarmendu nahi izan zutena zen irtenbidea baduela gertaera horren emaitzak, beti ere «Udalaren eta enpresaren aldetik borondatea baldin badago». Irtenbide bezala etxebizitza tasatu eta libretako batzuk babes ofizialekoak bihurtzea proposatzen du ezker abertzaleak. «Eskandalua» izan zen zozketa, eta «udal arduradunek erakutsitako jarrera arduragabea izan zen».

Ezker abertzalearen ustez, «egoera ekonomikoak eta krisiak bultzatuta alde batetik eta bere garaian egin zen etxebizitzaren erregimenen banaketa desorekatu horrek» ondorio bezala eman du «etxebizitza tasatu asko banatu gabe egotea eta etxebizitza libre asko saldu ezinik egotea. Horrek bidea irekitzen du txapuzari kon-

ponbidea emateko»; hau da, etxebizitza hauen erregimena aldatzea, babes ofizialekoak bihurtuz.

«Herriarren etorkizunarekin, ametsekin, zein bizitzarekin jokatu dute: errespetu falta lotsagarria da herritarrekiko». Zozketa egunekoak «ez luke inoiz gertatu behar» eta «giza akats bati egoteak arduragabekeria erakusten du». Izan ere, prozedura batzuk daude zozketak egiteko garaian, «giza akatsak sekula gerta ez daitezzen».

«Goizekoak ere legalak dira»

«Zeinek esaten digu orain arte egindako zozketan ez dutela zenbakiren bat ahaztu? Zalantza eta mesfidantzaren itzala proiektatzen du gertatutakoak». Nolabait esatearren, zozketaren prozedura «sinesgarritasunik gabe» utzi du.

Honi gaineratu behar zaio «txapuzaren konponketa beste txapuz handiago batekin buelta eman nahi izate». Izan ere, zozketa akto administratibo publiko bat da eta «zalantzan jartzen dugu akto administratibo hori balio gabetu daitekeenik». Hau balio gabetzeko «oso prozedura zehatzak markatzen ditu legeak eta ez zituzten prozedura horiek jarraitu».

Beraz, kontrakoa frogatzen ez den bitartean, «zozketa eguneko goizeko esleipenak guztiz legezkoak dira, besteak beste, bakoitza izen-abizenek identifikatua izan zelako. Horra bigarren txapuz». Horregatik erantzunkizun politikoa eskatu nahi dugu, «zozketa



Antton Izagirre, Hektor Espin eta Eider Elduaen (ezker abertzalea) saldu eta banatu ezinik dauden etxebizitzak babes ofizialeko bihurtzearen aldekoak dira. Honela zozketako bai goizekoak bai arratsaldekoak etxebizitza izango lukete. N.U.

mahaian zegoen eta hortaz, haren arduradun nagusia zenari: Jokin Bildarratz Tolosako alkateari. Berak egin duen bezala, burua ezkutatzeak eta erruak azpikoaren artean banatzeak koldarkeria eta ordezkatu nahi den herriarekiko errespetu falta erakusten du».

«Arrazoiak gure alde egin du»

Hau guztia kontuan izanik, Tolosako Udalari eta Voith-Gorostidiko eraikuntza enpresei dei egin nahi die ezker abertzaleak, «erantzunkizunetz joka dezaten, eta ne-

gozazioaren bidez zozketa hartan egindako txapuzari konponbidea eman diezaioten. Bere garaian salatu bezala, erabakitako erregimen banaketa ez da orekatua, herritarren beharrei erantzun gabe».

675 etxebizitzatolosalmentzat 79 izan ziren (babes ofizialekoak), hau da; %12. Libreak saldu ezinik eta tasatuak banatu ezinik daude. Datu hauek «garbi erakusten dute herritarren lehentasunen zerrendan azkenak izan direla hasieratik, guk salatu bezala».

Tolosako ezker abertzalea «ba-

karrik geratu da halako zentzuga-bekeria salatzerakoan, baina denbora arrazoi ematera dator gure argudio guztiak egokiak zirela frogatzera».

Bukatzeko, etxebizitzak egiteko orduan ere arrazoi emango diela adierazi zuten bertaritutako hiru hautetsiek. «Lastima da apartheidak eta Udalaren osaketa antide-mokratikoak hura geldiaraztea ezinezko egitea. Herritarrei eguneroko bizitzan eragiten dieten arazoak ere badira ilegalizazioaren ondorio».



Nahi duzun tokira
eramango zaitugu
uda honetan



GARMIN nüvi 200 GPSa

Harpidedun egin zaituz eta lortu doan GPS hau

- Kioskoan baino %10 merkeago eskuratuko duzu.
- Goizero etxean, lantokian, zure eguneroko kioskoan duzula ziurtatuko dizugu.
- Gure promozioetan (disko bildumak, libururuak, mendiko gidak...) abantaila bereziki gozatzeko aukera izango duzu.
- Astero-astero harpidedunen artean opariak banatzen ditugu.
- Mantangorri larunbatero 16 orrialdeko gehigarri koloretsua haur eta gaztetxoentzat
- NORA bidaia aldizkaria hilabeteko BERRIArekin
- ...

Animatu! Merezi du

HARREMANETARAKO:
943-30 43 45 • harpidetza@berria.info

Aukera ezazu,
BIZI euskaraz
berria

*Urte osoko harpidetzarako



Sanferminetan adarre aurre hartuz

TOLOSA » Lurre auzoan urte batzuk daramatzate Sanferminak ospatzen eta nola ez, ezin zezenak falta horrelako ospakizun batean. Lauzpa bost zezen gurgildun aritu ziren haurren atzetik eta gurasoen begiradapean. Ondo ikasiak daude haurrek, badakite korrika egiten atzetik zezena dutela. Ondoren, merienda ere izan zuten, indarrak hartzeko. Gauean afaria izan zuten. NOELIA LATABURU



Taldekieetako batzuk, argazkiak ateratzeko babeslea duten Leaburuko Mahala Baserrian elkartu ziren. Iñaki Insausti lehendakaria ezkerretik hasi eta seigarrena da. ENERITZ MAIZ

TRIATLOIA SASOI ONEAN

Kirola » Tolosaldeko Triatloi Taldea 30 triatletekin osasuntsu dago. Inork triatloian hasi nahi badu lagun talde honek atek zabalik dauzka.

ENERITZ MAIZ

Historia luzea du Tolosaldeko Triatloi Taldeak. Urteetan zehar gorabeherak izan baditu ere, gaur egun 30 triatleta ditu taldeak. Taldeko lehendakaria Tolosako Iñaki Insausti triatleta da. Entrenatzeaz gain, paper kontuak ere berak ematen ditu eta taldearen historia eta gorabeherak azaldu ditu.

1987. urtetik taldea bizirik

1985. urte inguruan, bizikletari bakarrak lotutako taldea sortu zuten baina 1987. urtean, triatloi talde bezala osatu zuten lehen taldea izan zen Tolosakoa. Tolosako Triatloi Taldea ia ia aitzindari izan zela esan daiteke, geroztik hasi baitzen Espainia mailan Triatloia zabal-tzen.

Taldeak, urte hauetan guztietan, gorabehera handiak izan ditu. «Hasiera, besteak beste, Dina Bilbaok-eta eman zioten eta haiek kirol maila handia lortu zuten», azpimarratu du Insaustik; «1994. urtera bitarte iraun zuten gutxi gorabehera». Hauen ostean, kirol emaitzak alde batera utzi eta lehia-keketan talde giroan parte hartzen zuten. Honek 2003. urtera bitarte edo iraun zuten eta hortik aurrera, taldeak jaitsiera nabarmena izan

zuela gogoratzen du Iñaki Insaustik. Bera izan zen taldean geratu zen bakarrenetakoa; «2004. urtean 8 edo 10 lizentzia genituen eta 2005ean lasterketara 1 edo 2 bakarrak joaten ginen. Taldea ez zen elkartzen eta Goierriara joateko asmoa ere izan genuen, baina 2006an beste kiroletatik jendea etorriko zela eta itxaron egin genuen eta oihartzuna zabalitzen hasi zen. Bestalde, mundu guztian asko zabaldu den kirola da triatloia». Eta orain, urtetik urtera taldea handitzen doala dio.

Taldearen gidaritza

30 triatletako talde batek ongi funtziona dezan, entrenatzeaz aparte paper kontuak ere egin beharra daude. Gidaritza lanak Iñaki Insausti tolosarrak egiten ditu. Bera 2004. urtean sartu zen taldean, hau da, taldearen garairik txarretarik batean eta gaur egun taldean urte gehien daramanetakoa bat da. Honela azaldu ditu bere egin beharrak: «Taldeko deialdiak, hau da, bilera guztiak lotu eta aurrera eramatea izaten da. Udaletxera aurkeztu beharrekoak ere prestatu behar dira, lizentziak tramitatu ere laguntzen dut. Bestalde, memoria egiteak lana eska-

tzen du, eta kirol emaitzak ere bilatu behar dira. Atez ate jendearen bila ere joan behar da eta arroparen kontua ere mugitu behar izaten da. Duatloi Herrikoia antolatzeara ere hor dago; hala ere, beste 2 kideren laguntza ere izaten dut».

Nahiz eta talde sendoa izan beraien poltxikotik jarri beharrekoa gutxiago izan dadin, diru iturriak bilatu behar izaten dituzte. Azken bi urteetan zorteko dira. Joan den urtean, enpresa baten laguntza izan zuten eta aurten ere saiatu ostean, Leaburuko Mahala Baserriko Produktuak dituzte babesle moduan. Bestetik, Tolosako Udalak, talde bezala eta Tolosako Dua-

Iñaki Insausti triatloilaria da Mahala Triatloi Taldearen lehendakari lanaz arduratzen dena

30 triatleten artean neska bakarra dago; aurten hasi da Mirian Elorza triatloi taldean

tolei Herrikoia antolatzeagatik ere diru laguntza ematen dio Tolosaldeko Triatloi Taldeari. «Lizentzia eta arropak gure kontura doaz, oso gauza intimoak, pertsonalak eta asko puskatzen direnak direlako. Eta laguntzetako diruarekin lehia-keketarako arropa egiten dugu eta sobratuko balitz lizentziak ere

hortik ordaintzea posible izango genuke. Aurrera begirako helburu lizentziak ere taldearen kontura izatea litzateke», argitu du Insaustik. Hasierako urteren batean babeslea izan zuten baina bestela, urte luzez udaltxeko laguntza jasotzen zuten eta lagun talde moduan beste guztia bakoitzak bere poltxikotik jarritz lehiatzen ziren.

Taldeko atek zabalik

Tolosaldeko taldea dugu triatloi talde hau eta inork taldean sartu nahiko balu, urte guztian atek irekita ditu. Taldekideren bati komentatzea nahikoa da lizentzia egin eta triatloi probetan parte hartzeko. «Lizentzia urteko edozein egunetan atera daiteke eta mundu honetan dabilenak badaki nor garen. Taldekoren bati aipatu eta niregana iritxiko litzateke. Eta ondoren, tramitatu beharrekoa egiten lagunduko genioke». Tolosaldeko taldea den arren, joan den urtean Donostiako kirolari bat ere izan zuten.

Neskei dagokienean, bera taldean dagoenetik, aurten animatu da lehena eta bakarra. «Kirol askotan gertatzen da eta iraupeneoak diren hauetan oraindik eta gehiago. Hala ere, ugaritzen ari dira eta zenbait proba arrakastatsu izan dira».

Denboraldiaz galdetuta hau esan du Iñaki Insaustik: «Nahi izan gero, urte osoan lehiatu zaitezke, denboraldi bat bukatu eta pare bat astean, bestea hasten da. Nor-

beraren esku dago atsedena noiz egin nahi duen eta zeintzuk diren bere helburuak. Batzuk, zati bat hartzen dute gogo handiagorekin bestea baino». Batez beste, asteburero 10 taldekide ateratzen dira. Bakoitzaren aukera eta gogoaren arabera izaten da eta noski, talde honetan ere denetik dago. «Hasieran duatloiak baino ez dituzte egiten igerian ez direlako ongi sentitzen baina behin probatuz gero harrrapatu egiten ditu. Beste batzuk parte hartu eta bukatzea besterik ez dute helburu denetik dago», dio Insaustik

Neguan, abendutik martxoamaitza bitarte, duatloiak izaten dituzte. Eta behin udan uraren tenperatu igotzen denean, irailla bitarte triatloiak izaten dira. Lau motatako triatloiak daude: «distantzia-esprinta 750 metro igerian, 20-25 kilometro artean bizikletan eta 5 kilometro korrika izaten da. Olinpikoaren kasuan, 1.500 metro igerian, 40 kilometro bizikletan eta 10 kilometro korrika dira. Olinpiko bikoitza, olinpikoaren neurriak bikoitza da eta gero ironman ia legoke», azaltze du Insaustik.

«Jendeak triatloia ironmanarekin identifikatzen du, distantzia salbaje guzti horrekin eta ez, proportzioan jende gehiagok praktikatzen du distantzia motza». Euskadi mailan, gehienak esprintak eta olinpikoak dira eta bi luze dudelak baiezta du: «Euskal Herrian

» TRIATLOILARIAK

- Aitor Mendia (Alegia).
- Aritz Aranzegi (Tolosa).
- Aitor Regillaga (Tolosa).
- Aitor Elduaian (Tolosa).
- Alar Sevillano (Tolosa).
- Alberto Vaquero (Tolosa).
- Asier Saez (Tolosa).
- Edu Gonzalez (Ibarra).
- Gorka Sarasola (Tolosa).
- Ibon Gonzalez (Tolosa).
- Igor Aranburu (Orendain).
- Iñaki Insausti (Tolosa).
- Iñigo Altuna (Tolosa).
- Ion Marin (Tolosa).
- Ion Artutxa (Tolosa).
- Ion Alberdi (Berrobi).
- Jon Etxetxipia (Tolosa).
- Jon Mugika (Tolosa).
- Iosu Mendizabal (Tolosa).
- Javier Rodríguez (Zizurkil).
- Jorge Amiana (Tolosa).
- Jose Luis Zabala (Berrobi).
- Karlos Diez (Asteasu).
- Karlos Madero (Asteasu).
- Mirian Elorza (Elduaian).
- Manu Elorza (Tolosa).
- Pablo Uranga (Tolosa).
- Sera Tena (Tolosa).
- Unai Aizpuru (Anoeta).
- Xabier Saizar (Ibarra).

mugitzen gara gehienbat eta nahi duenak Espainian zehar ibiltzeko aukera du; taldeko batzuk Europa aldera ere joan ohi dira ironmanak egitera».

Taldekako probetan, lehen hiru taldekideek puntuatzen dute eta federazioek sailkapenean eragina duenez, horretan saiatzen dira. Aurtun, taldeka erlojuaren aurka egiten den proba bat egin da eta Euskadikoan hirugarren eta Gipuzkoakoan bigarren postuak lor-

Inork triatloi taldean sartu nahiko balu urte guztian zehar atek zabalik dauzka

Jendeak triatloia ironmanarekin lotzen du baina gehienek distantzia motzak egiten ditugu

tu dituzte. Beste zenbait probetan ere sailkapen txukunak lortu dituzte eskualdekoek.

Bukatzeko, komunikabide aldetik, triatloiarren inguruan hutsune handia dagoela gogorarazten du.

Gaur, Gasteizen

Gasteizen Espainiako distantzia luzeko txapelketan parte hartuko dute gaur, 5 taldekidek. Goizeko zortziretan hasiko dira eta Landako Natur parkeko urtegiaren 4 kilometro igerian egin beharko dituzte. Ondoren, bizikletak hartu eta 120 kilometroko ibilbidea egingo dute Gasteizera iritsiz. Behin hiriburuan sartuta, bizikletak utzi, korri egiteko zapatilak jantzi eta 30 kilometro korrika egin beharko dituzte Salburuako lorategien inguruan.

Ea zorte ona duten eta emaitza onekin bueltatzen diren etxera!

«Mugak norberak jartzen ditu eta garrantzitsuena gustura gelditzea da»

IOSU MENDIZABAL ETA IGOR ARANBURU » triatloilariak

Triatloia » Iosu eta Igor triatloia praktikatzeko duela bi urte hasi ziren eta beraien esperientzia kontatu dute.

E. MAIZ

Tolosaldeko Triatloi Taldeko kideetako batzuk, Leaburuko Mahala baserrian geratuta zeuden argazkiak ateratzeko eta gu ere bertan elkartu ginen. Iosu Mendizabal (Tolosa, 1980) eta Igor Aranburu (Orendain, 1979) triatloilariak animatu ziren galdera sorta honi erantzutera.

Nolatan aukeratu zenuten triatloia?

Igor Aranburu. Ni mendiko eskian ibiltzen nintzen baina eskiko denboraldia bukatzean beste zerbaitegin nahi nuen eta triatloia gustatzen zitzaidan. Lagun batzuk triatloian hasi ziren eta beraiek animatuta hasi nintzen orain dela 2 urte. Gehienak ezagunak nituen eta talde eta giro polita zeukaten eta lagun talde bezala. Gainera, kirola betidanik gustatu izan zait eta txikitatik izan naiz lehiakorra.

Iosu Mendizabal. Nire kasuan ere antzera. Bizikletan ibiltzen nintzen eta pixka bat nazkatuta nengoan erabat bizikletarekin ibiltzen. Beste kirolen bat egiteagatik duela bi urte sartu nintzen.

Nola moldatzen zarete lana eta entrenamenduak aurrera eramateko?

I. M. Lanaren arabera bakoitzak mundu ezberdina daukagu. Eta bestetik, bakoitzak dituen helburuak zein diren dago. Batzuk ironman prestetzen ari dira eta horiek asko entrenatu behar dute. Nire kasuan, lanetik atera eta bi ordu dauzkat entrenatzeko eta ahal dudanean eta gogoia daukadanean entrenatzen dut. Egunero seietan ateratzen naiz eta orain ondo, eguna luzatu duelako baina bestela igerilekura zoaz eta igeri egiten duzu, baita eurria ari badu ere. Kirol honek hori du ona, aukeratzeko duzula.

I. A. Astean lau bat egunetan entrenatzen dut. Gorputzaldiaren arabera izaten da eta bost egunetan entrenatu zaitezke baina deskantse egunak ere errespetatu egin behar dira, bestela gorputzak bale esaten du. Nik beti goizez egiten dut lan, lankidea arratsaldez hobeto moldatzen da eta. Bazkaldu, siesatxo bat egin eta gero bi orduz entrenatzen dut.

Zein entrenamendu mota egiten duzue?

I. M. Denboraldian gaudenean, igerian, korrika eta bizikletan ibiltzen naiz. Neguan denetarik egiten dut. Korrika gutxiago ibiltzen



EMAZ

naiz eta mendiko bizikletaz ibiltzea gustatzen zait.

I. A. Denboraldi garaian, ni ere igerian, korrika eta bizikletan ibiltzen naiz. Baina denboraldia bukatu ostean mendira joatea ere gustatzen zait. Atsedena hartzen dugu baina beti gaude zerbaitegin.

Elikadurari garrantzia ematen diozue?

I. A. Normalean janariari ez diot begiratzen, beldurrik gabe jaten dut eta denetik. Astean lau egunetz entrenatzen asko erretzen dugu eta nahiz eta asko jan, argaldu egiten dugu. Jendeak askotan galdeztatzen du «zuek batere jaten al duzue?» baina parean jarri eta seguru beraiek baino gehiago jaten dugula. Gozo gazzak ekiditen saiatzen naiz baina horiek ere tarteka jaten ditut.

I. M. Denetik jaten dut, ahal dela garbi eta baserriko produktu freskoak jaten saiatzen naiz. Elikatu egin behar da eta elikatze ondo jan beharra dago.

Nola antolatzen duzue denboraldia. Asteburuero parte hartzen duzue?

I. A. Duetloiak martxoan hasten dira, triatloiak maiatzean eta uztaiala-abuztuan denboraldia bukatzen dugu. Probetara berriz, go-goaren arabera joaten gara eta lekuaren arabera ere badago. Asteburuero 25 euro dira eta azken finen dirua da. Taldean ia 30 gara baina inoiz ez gara denok batera ateratzen.

I. M. Aukera edukiz gero denboraldia luzatu dezakezu eta kanpo-

ko probetara joan zaitezke. Baina normalean taldeak uztailean bukatzen du denboraldia.

Gogoko duzue baina kirol guztiak bezala, honak ere sakrifizioa eskatuko du?

I. A. Helburuen arabera ere bada baina gogorrena eguraldi txarra egiten duenean da, baina hala ere entrenatu egin behar duzu.

I. M. Hiru kirolean erregularra izan behar duzu. Ezin duzu kirol batean asko destakatu eta bestean gutxi ibili. Gogorra da eta denbora kentzen du baina bestela gustuko dugunez moldatzen gara.

Taldean giro ona duzuela ikusi dute.

I. M. Azken finen taldeak hori behar du, bestela zertarako taldean ibili ez?

I. A. Bai giro oso ona daukagu. Bestela bakoitza bere airera, independenteki joango ginen. Gure afariak ere egiten ditugu. Adibidez, Zarautzeko triatloi probaren ostean afaria egin genuen eta Ibarra Gaste Festetan parrandaxo bat egin genuen.

Triatloiak zer eman eta zer kentzen duzue?

I. A. Niretzat kirola bizitzako parte oso garrantzitsua da, asko ematen dit. Kendu berriz, ez dizu denborarik ematen lagun artean egoteko edo beste gauza batzuk egiteko. Bizitza soziala egiteko ez duzu nahi beste denbora. Baina, hala ere, gustura egiten dugu, inork ez zaitu behartzen honetara.

I. M. Igorrekin bat nator. Beste planen bat egiteko zenuke baina asko-

tan ezin duzu. Batez ere, denbora kentzen digu.

Triatloia kirol garestia izango da, ezta?

I. M. Bai garestia da. Ez da kirol baten kasuan bezala, hiru kirol dira eta hiruretarako material ezberdina behar duzu. Urte batean gauza bat eta hurrengoan beste zenbait erosten dugu.

I. A. Bai. Pixkanaka-pixkanaka erosten ditugu, triatloian hasi zarela eta ezin duzu bizikleta berria, neopreno... dena batera erosi.

Norbaitek kirol honetan hasi nahi balu, zer esango zenikete?

I. M. Batik bat gazteak animatuko nituzke. Lokaletan sartuta egon beharrean, taldean giro ona dugula eta kirola eginez ere ondo pasa daitekeela.

I. A. Kirola egiten ere ondo pasa daitekeela esango nieke. Gazteetan arazorik handiena diruarekin ikusten dute. Ekonomikoki ez duzu dirurik eta kirol honetan bizikleta, neopreno... behar dituzu baina pixkanaka lor daitezke.

Eta zer esan neskei? Taldean bat duzue.

I. A. Aurtun hasi da Mirian eta ea gehiago animatzem diren. Geroz eta emakume gehiago ikusten dira lehiatzen ere.

I. M. Neskei deialdi berezi bat, kirola egitera animatzeko. Kirolguztietan bezala gertatzen da eta neskei gehiago kostatzen zaie animatzea. Bakoitza bere buruarekin gustura gelditzea da garrantzitsuena eta hemen mugak bakoitzak bere buruari jartzen dizkio.



25°
17°

GOIZA ESTALIA
ARRATS. ESTALIA
BEROENA 28°
HOTZENA 16°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@irragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L. ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ameketa, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Kirola

■ **Asteasu.** Santamañako IX. Igoera korrika gaur 10:30ean (7 km).

Zinema

■ **Tolosa.** *Coco: de la rebeldía a la leyenda de Chanel* filma emango dute Leidor aretoan gaur 19:30ean eta bihar (Ikuslearen eguna) 20:30ean.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Tailerrak gazteentzat: hilaren 10ean bitxiak egitea, hilaren 14an henna, hilaren 24an grafiti, hilaren 15ean filma proiektatu-koko dute eta 17an merendola eta karaokea. Izen-ematea, Topagunean.

■ **Tolosa.** Zuentzart eskulan denda, udarako eskulan ikastaroak antolatuta dituzte. Taldeak umeentzat nahiz helduentzat irekiak daude. Izen-ematea denda edo 676140622 telefonon.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.
Bihar
■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarien adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.




Bukatu dira Opor Musikalak

TOLOSA • Urduritasuna zen nagusi ostiral arratsaldean Tolosako Musika Eskolako areto nagusian. Ekainaren 29tik uztailearen 10era arte 4 urtetik 12 urte bitarteko gazte txokok Opor Musikaletan hartu dute parte eta ostiralean ekimen interresgarri honen bukaera ospatzeko emanaldia izan zen. Senitartekoak adi-adi zituztela erakutsi zieten bi asteetan egindako lana, eta urduritasunak arazoren bat edo beste sortu bazuen ere, emanaldi polita eskaini zuten azkenean. R.CALVO


A Agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak



Urte askoan!
Zorionak Aiert.
Etxekoan eta maite zaitugunon partetik.



Zorionak!
Idoia eta Ion Ander. 20 urte elkarrekin. Ondo pasa Tailandiako ezkontz bidaian!

berria bekak 2009

NORENTZAT:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

Kazetaritza arloa: **zortzi beka**, horietako bat, bideo informatiboak lantzeko.

Ezaugarriak:

- Bederatzi hilabeteko iraupena, urritik ekainera
- Astean lau eguneko jarduna
- 6.255 euroko diru laguntza
- BERRIAk Andoainen duen egoitza nagusian edo ordezkarietzan

Zuzenketa-itzulpengintza arloa: **beka bat.**

Ezaugarriak:

- Hamabi hilabeteko iraupena, urritik irailera
- Astean lau eguneko jarduna
- 8.340 euroko diru laguntza
- BERRIAk Andoainen duen egoitza nagusian

Eskaerak aurkezteko azken eguna: 2009-09-08

Eskaera egiteko orria eta beka deialdia www.berria.info helbidean dago eskuragai

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**